

Baleike

Zumaiako herri aldizkaria. 33. zenb. 1997ko martxoa. 100 pzta.



Elkarrizketa

Juanita Beristain,
bizi guziye
esne-partitzen


*Etxebizitzak,
gutxi eta
garestiak*

Taldeko batek utzitako argazkia




LEHENGO PLAIEROAK

ZUTIK: Javier Sasiain, Manuel Sesma, Fernando Arano eta Juan Mari Zearreta.
MAKURTUTA: Jesus Irureta, Julian Aizpurua, Xatur Garate eta Xanti Orena.



En la edición de esta publicación colabora:

 **kutxa** fundazioa
fundación

Argitarapen honen edizioko laguntzaile:



CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

Aldizkari honek Eusko
Jaurilaritzako Kultura Sailaren
dirulaguntza jaso du



ZUMAIAKOUDALAK
lagundutako aldizkaria



BALEIKE

HERRI ALDIZKARIA

Foronda kultur etxea

tfnoa: 86 10 56

faxa: 861742

argitaratzailea

ZUMAIAKO

GAZTE

BATZORDEA

Iantaldea

Iratxe Aizpurua

Esther Martinez

Eneko Dorronsoro

Xabier Azkue

Igor Uranga

Josu Waliño

Gorka Zabaleta

Juan Luis Romatet

Kolaboratzaileak

Ostarrena Zine Klub taldea,

Agustin Aizpurua,

Bertso Eskola, Eulali,

Miriam Romatet, Ainara

eta konpainia, Imanol Manterola,

Amaia Benito, Jon Manzisidor,

Igone eta Nerea, Josu eta

Arantxa, Asier eta Fran, Ainhoa

Iturbe, Mattin, e.a.

publizitatea

861056 tlf.

inprimategia

Gertu Koop. E.

(Zubillaga - Oñati)

tirada: 900 ale

Lege gordailua: SS-405/94

ISSN: 1136-8594

BALEIKEk ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Izerdi patsetan
Julian Igual
kroserako
prest
....22. or.



Festak:
ihauteriak
argazkitan
...6 or.



Ze berri?
Manifestazio
jendetsua
sendagile
eske
.... 8 or.



Euskaldunak eta ETB1

Badirudi euskalduna izatea eta kirolzalea izatea gauza bera dela. Hala dirudi Euskal Telebistaren lehen katea ikusten badugu behintzat. Goiz, arratsalde eta gauz aurkituko dugu kirolarekin zerikusia duen zerbait. Futbol partidu bat ez bada, partidu honen ordu beteko laburpen bat izango dugu ikusgai. Eta ez, ez nago futbolaren aurka. Ondo ikusten dut Errealaren, Athleticen edo Eibarren partiduak botatzea, baina 2. mailako Albacete-Leganés bat botatzea, edo igande



Juan Luis Romatet

goiz batean At.Madrid-R.Madrid bat errepikatzea, edo okerrago, denboraldia amaitu ondoren urteko partidu "onenak" berriz ematea gehiegizkoa da. Futbol partidurik ez dagoela? Lasai, beti egongo da eta beste kirol ekintza bat: eskubaloia, txirrindularitza, saskibaloia, pilota, arrauna, boxeoa, herri kirolak... denetik!

Baina ETBkoek badakite kirola atsegin ez duen jendea badagoela, eta horregatik, hauentzako espreski eginiko programazio bat jarri dute martxan: txiste zahar eta txarrak entzun daitezkeen *Txiskola*; *Goenkale* bedeinkatua; *Aire-Aire* bezalako programa "berritzaileak"; musika maite duenarentzat Nafarroako jota txapelketa; Aste guztian pelikula bat eta bera txarra eta bikoizketa negargarria duena; Mr.Bean-en kasuan hobe ezer ez esatea...

Halako telebista merezi al dugu euskaldunok? ... Baliteke.



PREMIAZKO TELEFONOAK:

| | | | |
|----------------------------|----------|-------------------------------|----------|
| Kultur Etxea | 86 10 56 | Ludoteka..... | 14 32 64 |
| Polikiroldegia..... | 86 20 21 | Tren geltokia..... | 86 11 27 |
| Gurutze gorria..... | 86 10 93 | Taxi geltokia..... | 86 13 60 |
| Udaletxea..... | 86 02 50 | Bake epaitegia..... | 86 00 67 |
| Gizarte Zerbitzuak..... | 86 22 00 | Posta..... | 86 15 00 |
| Osasun zentrua..... | 86 08 62 | Udaltzaingoa..... | 86 18 70 |
| San Juan Egoitza..... | 86 12 73 | Pilotalekua..... | 86 21 72 |
| Pentsiodunen Egoitza.... | 86 17 00 | Larrialdi zerbitzua..... | 46 11 11 |
| Musika eskola..... | 86 11 83 | Txomin Agirre euskaltegia.... | 86 02 48 |
| Alkoholikoen senideak...47 | 54 03 | Sexu-informazioa..... | 32 04 44 |



**ASIER
ZAMAKOLA**

Pijoeski?

Betidanik entzun izan dugu eskia pijoen kirola (kirola?) dela. Nork ez du horrelakorik entzun, edo baita esan ere?

Benetan, gure ikuspuntu hau aldaraztea ez da gauza erraza izango baina, tira, guztion artean posible izango delakoan nago. Pasa berria den otsailaren hogeitabi eta hogeitahiruko asteburu hortan, 61 pertsonak hortan jardun genuen, pijoak ez ginela gure burua konbentzitu nahian. Eta, egia esan, ez da gauza zaila izan. Benetan gure itxurak ez zirela pijo talde batenak.

Batek lagunari eskatutako, eta neurri nahiko traketseko, galtza polit batzuekin. Ondokoa, eskiatzaile sutsua (edo asmo horrekin, behintzat) Tombaren antzeko eski alokatuekin. Inguruan, beturreko iluneko tipo anonimo batzuk, aldapa behera hezurak ez uzteko asmoarekin. Guztiak elkarrekin, talde majoa, benetan ikusgarria.

Bada asteburu batean zer kontatu. Elurrik ez eta horra nora doan sekula eskirik jarri ez duena elurra dagoen leku bakarrera, goi aldera, nondik beherako bidea, noski, aldapatsuagoa den. Laguna, harritura, pista berde, urdin edo gorri bila. Non koño ote dira hoiek, denak txuriz margoturik badaude? Azkenean, beheko aldea berde-berdea benetan (baina zoritxarrez belarragatik eta ez pistako arduradunek jartzen duten kolore maila horri esker) dagoela eta, denok eguzkia hartzera goi aldera, Juan Carlos Espainiako errege den horren izena daraman pistara igotzeko jendetza mordoxka batekin batera zai egon eta gero. Gauean, hasieran Jacara parrandarako asmotan zeudenak ere ipurdia gogortuta daukatela eta, denok lasai eta txintxo ohera (ez dut uste sekula larunbat gauean hamaiketarako jende guztia lotan ikusi duzuenik, benetan ikusgarria).

Ingandean goizeko zortzietan «diana», berehala gauzak jaso eta gosaritara bajatzeko, horrela larunbateko bezalako eguna gozatu ahal izango dugulakoan. Hara non gure ilusio guztiak euripean bukatzen diren! Ordu bete pasa ondoren jendea bueltan agertzen da, musikaz blai (blai benetan, baina musika bakarra euria eta elurrarena izan genuen). Izerdia ito egiten da horrenbeste uraren aurrean eta gure eguna bukatutzat eman beharra dago eguraldi honekin. Gutxienez, lehenago irten eta Erribera kaleko txikiteora heltzeko asmorik zuena ere ez zen falta. Hirurak alderako gehienak parrandan kaletik, hiru t'erdia eta autobus inguruan dantzaka, maleta eta eski guztiak pilatzen. Zenbat jende falta da? Bakarrik hiruzpalau, baina berehala etorriko dira, pistetan inor ez dagoela ikusirik. Laurak eta inor ez. Azkenean goizean gelditutako orduan, lau t'erditan, irten beharko dugu (adio Erribera kaleko txikiteoari). Azkenean hara non agertzen zaigun azkeneko taldetxo. Denok gora eta alde. Denok???? Kontuak ez daude ondo, norbait falta da. Itxaron eta... ez dator, bila joan behar informazio bulegora, botikinera, alferrik. Buelta autobusera eta han non agertu den, ordurik ez duela eta eguzkia ikusten ez denez, konturatu ez zer ordu den pistetatik bidali arte.

Bukatzeko, bidaia polita etxeraino (misilak justu-justu kendu genituen Alkatrazetik, eh?) eta gogoratzeko gauza batzuk: norbaiti erlojutxo bat oparitu behar diodala, eskiak Candanchun utzi eta bertara berriz ere joan beharko dudala eta gainera belaunean minbera dudan bakoitzen Juan Carlos pista hortan hortzak justu-justuan salbatu nituela gogoratu behar. Pijoen kirol hau gustoko dut benetan, eta zuek?

Bertso eskolan



**JOXE JOAKIN
AIZPURUA**

Bertsotarako biltzen gera ta beti isilune pranko ez ote gaude denok hobeak beste zerbaitetarako zer esanik ez edukitzea bertsolari batentzako benetan gauza penagarria dela uste dudalako

Garai batean inguraturik lagun eta arerioz ibiltzen ginan bertso munduan gai alai eta serioz berriro zerbait sortu leikela pentsatu det ondorioz ea pixka bat hobetzen gran jardunaren poderioz



Habana
auto

Mekanika eta
karrozeria

Axular ibiltokia, 14 - 86 00 70
Zumaia

ROSI
GARBIKETAK


- Etxeak eta dendak
- Enpresa eta auzo lanak
- Erropa garbiketa eta tintaketa

Basadi 3-A
Tif. 861670

BELARDENDA
SIWA

Esther Blanco
OSTEOPATA-MASAJISTA
Basadi 5-C behea
Tlf: 143404 - 860012

Euskal abizenak Euskaraz



Joan den hilean adierazi bezala, Zumaiako Udaleko Hezkuntza eta Euskara batzordeak, martxoan zehar, **Euskal abizenak grafia zuzenez** idazteko kanpaina martxan jarriko du, herritar guztiei erraztasunak emanez beren abizenak euskaraz zuzen idazteko. Zuzenketak egin ondoren, agiri guztietan abizenak euskaraz azalduko dira.

Beraz, **euskal abizenak euskaraz** idatzi nahi izanez gero, ondorenean aipatzen diren agiriak ekarri beharko dira Udaletxeko Euskara Zerbitzura:

Herritarrak ekarri behar dituen agiriak:

- NANaren fotokopia.
- Jaiotza-agiria.
- Abizenak euskaraz dauden bi agiri (adibidez, elkarte bateko bazkide txartela, fakturaren bat...).
- Famili liburuaren fotokopia, seme-alaba gazteen abizenak ere aldatu nahi izanez gero.

Udalak egingo duena:

- Erroldako ziurtagiria.
- Euskaltzaindiko ziurtagiria.
- Eskaera egiteko istantzia.

Laburrak

ZUMAIAKO HITANOA AZTERTZEKO BEKA

Hezkuntza eta Euskara batzordeak, herriko *hikako hizkera* aztertzeke egindako deialdiaren ondorioz, hiru proiektu jaso dira, hauetako bi, zumaiarrek egindakoak.

Otsailaren 24an bildu zen epaimahaia Udaletxean eta proiektuak aztertu ondoren, **Xabier Azkue Ibarbia** aldizkari honetako lantaldeko partaide denak aurkeztutakoa onartu zen.

Ikerketa hau egiteko 6 hilabeteko epea ematen da eta 800.000 pezetako laguntza.

Udalak agiri guztiak prest dauzkanean, herritarrak Zumaiako Bake Epaitegira eramango ditu, eskaera Madrilera bidal dezaten (norberaren kontura eginez gero, Azpeitiko Erregistro Zibilean egin behar izaten da).

Eta kanpaina honen helburua **euskal abizenak euskaraz** idazteko erraztasunak ematea denez, herritarrak aukera honetaz baliatzea nahi genuke.

Edozein zalantza argitzeko edo informazio gehiago behar izanez gero, Euskara Zerbitzura 860250 telefonora deitu. ■



ZORUEN KUTXILAKETA ETA BARNIZAKETA.
PARKETA JARTZEA.

Estazioko 12 Tel.: 861412

AIZMAN-KOS S.L.

SANEAMENDU ETA
ERAIKUNTZA MATERIALA

Iraeta
auzoa z/g
Aptdo. 78

Tlf/Fax: 14 81 24
20740
IRAETA -ZESTOA

Antonio Etxabe
Gizonezkoen erropak



Zunbillo 4
Tlf: 861407





Arre arre, kamarari irribarre.



Arrautza sorpresa dantzarako ez da erreza.

I
H
A
U
T
E
R
I
A
K



Pakito Txokolaterekin a zer gerriko min!



Txomingero kuadrilla afaltzeko parrilla.



Gañekua ere badek azpikua aiña...

9
7



Txilbor banda, dana emanda.

Arkupe
 Okindegia
 eta gosariak
 Kale nagusia, 2




ERTZ
 INFORMATIKA
 ORDENAGAILUAK
 MULTIMEDIA
 MARTXOÁ-EKAINA
 WINDOWS
 WORD-EXCEL
 Mendaro Mariñela 3
 Tel./faxes 143395





Orinalakin hobeto,
gonbituak botatzeko.




Kaben la Rusia,
ni ez nauk itxusia!



Horra bi Bakero, Mexikotik
itzuli eta gero.




Bizargorri Bikingo, ez diat
parranda gehio ingo.




Hi Lejarreta, non zioz
Moflin bizikleta?




Birjina edo Santa, parranda-
zale galanta.



Maneli, zertaz zoazen
esaidazu neri.



Festatxokoak pailazo,
Pailazoak festatxo.



Rappel aizak hik ez daukak
etorkizunik.



ZUMAI A



AUTO -ESKOLA



- * Gida-baimen guztiak ateratzeko baimendua
- * Praktika eta azterketak Azpeitian
- * GURE HELBURUA: Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 behea

☎ 861018

20750 ZUMAI A



TABERNA

Juan Belmonte 5 Tlf: 86 10 57

Manifestazio jendetsua

Ehundaka lagun bildu ziren larrialditako sendagile eske hilaren leian. Oraintxe urte bete da larrialdi zerbitzuaren aldaketaren aurrean lehen bilerak egiten hasi zirela. Osakidetza ez du amore eman, Udalak mozio bat onartu arren ez da aurrerapausorik eman eta mobilizazioetara jotzea erabaki du batzordeak.



Hemendik aurrera mobilizazioekin jarraitzeko asmoa dago..

Lehen mobilizazioa hilaren leian egindako manifestazioa izan zen eta arrakastatsua izan zela esan daiteke, ehundaka lagun bildu baitziren Behoko plazatik abiatu eta bertan amaitu zen ekitaldian.

Batzordeak pasa digun ohar baten bitartez lehengo larunbatean jasotako herritarren babesa eta laguntza ekonomikoa eskertu nahi dute, 70.000 pezeta bildu baitziren bertan.

Bestetik, eta beste ekimen batzuei helduz, batzordea Donostiako Osakidetza autobus batzuk

antolatzeko aukera aztertzen ari da, garai batean jasotako sinadurak probintziko arduradunari eman asmoz. Hori baino lehen, igandean, hilak 9, kros herrikoia dela aprobeztatuz, kontzentrazio bat burutzea pentsatu da, frogak irauten duen artean pankarta baten inguruan ahal den jende gehiena bilduz.

Batzordearen ustez "zuma-iarrek emandako erantzuna hausnarketarako baliagarria da, askok uste baitzuten kontu hau galdutzat jo zitekeela eta gutxi batzuen arazoa zela". ■

Laburrak

"Itsas Garbia"

Euskadiko Itsas Gaztediak, Eusko Jaurlaritzarekin burutzen ari den kanpainaren barnean, zabor kontenedore bat, pila kaxa bat eta plastikozko poltsak eskaini nahi dizkie dohainik Zumaiako itsasuntzi bakoitzari antxoia arrantzualdiaren hasieran.

Zumaian ezezik, Euskal Herriko portu guztietan --Arca-chonetik Zierbenaraino-- jarri da martxan kanpaina hau, altura nahiz baxurako sektoreetan. Baina arrantza sektoreaz gain, uda partean kirol eta aisialdirako untiak erabiltzen dituztenengana ere zuzentzeko asmoa dute, itsas ingurunearen garrantziaz gehiago kontzientzia daitezen.

"Itsas Garbia" kanpaina ahalik eta gehien zabaldu dadin, material informatiboa ere banatuko da: kartelak, triptikoak, eta garrantzitsuena izango dena, TXO aldizkaria.

Argi dago arrantzaleak ez direla itsasora zabor gehien botatzen dutenak, nahiz eta hauek ere erantzule izan kareletik botatzen dutenagatik. Baina egia da, era berean, arrantzale askoren bizibidea eta etorkizuna dela itsasoa, eta horrexegatik zaindu egin behar dutela inork baino gehiago.

Datu interesgarri bat: Pila-botoi batek (erlojuena) 600.000 litro ur kutsatzeko adina merkurio dauka, hau da, baxurako 60 itsasuntziren garnata bizien haztegien kapazitatea.

*Jesuskoa
Patetxea*




Araia 86 17 39 • Urtia Zumai

M a i a u r



MILA ILE APAINDEGIA



Ile - kosmetikan diplomatua

Foruen Eparantza, 13 - 1 Tfnoa: 861160
ZUMAIA

Helikopteroen trafiko handia Zumaiako zeruetan



Tamaina handiko helikopteroak ibili dira aurrera eta atzera.

Garraiolarien grebak iraun zuen bitartean Ayra-Durex enpresak helikopteroak erabili zituen piezak ekarri eta eramateko. Oraintxe helikoptero gorria, hurrena horia, egunean zehar zenbait bidaia egiten zituzten batzutan, gure herriko zeruak zeharkatu eta inguruan bizi direnen belarriak zigortuz.

Hasieran anexoan lur hartzen zuten, baina gerora ondo asmatzen zuten enpresaren ondoko zabalunean jeisten. Ikusmin handia sortu zen helikoptero hauen inguruan eta jende ugari bertaratzen zen Ayra-Durex aldera: umeak, gazteak, jubilatua... Bost minutu baino lehen piezak kargatu eta martxa berriz ere!

Laburrak

Patxi Aristi gose greban

Patxi Aristi preso politiko zumaiarrak gose greba bati ekin zion otsailaren 18an, beste zenbait preso politikorekin batera. Ekimen honekin beren eskubideak betetzea eskatzen dute, hauen artean guztiak Euskal Herriratzea. Caceresko kartzelan dago Patxi une hauetan, eta hilaren leian 25 zumaiar joan zitzaizkion bisitan, eta martxa honek Guardia Zibilen kontrola pasa behar izan zuten arren, lortu zuten azkenean Caceresa iritsi eta Patxiri beren elkartasuna adieraztea. Bestalde 7 eta 8an itxialdia burutuko da profesional zaharrear.

Gazte Batzordearekin sagardotegira

Urtero bezala, Gazte Batzordeak sagardotegirako irteera antolatu du. **Hilaren 15ean** izango da eta beharbada izango duzu oraindik ere izena emateko aukera, Nikolen.

Txintxo-txintxo ibili!

ZALLA
Taberna - Erreteria
PLATER KONBINATUAK
OTARTEKOAK
OILASKO ERREAK
San Pedro, 4 - Zumaia Tlf: 862387

xirula

TELEBISTA
BIDEO
HI-FI
ARGAZKI ETA BIDEO
ERREPORTAIK
ERREBELATZEAK
KAMARAK
MUSIKA
Erribera kalea, z/g 20750 ZUMAIA
Tel. 861705

EGUZKI
PUB
KOKTEL BEREZIAK

Basadi Auzategia
9-A 2-B
ZUMAIA

IZETA
orrastegia

Urumea 6
Tlf: 862083

ANA
ETXeko ZAPIAK

Ignacio Zuloaga enparantza
Tel. 861157

Paki
Belardenda

OSASUN NATURALA
Erribera kalea 2, Tlf: 143156 - 86 22 44

Juanitak 72 urte ditu, baina hala ere egunero jeisten zaigu Xarrondo-Bekoa baserritik, semearen laguntzaz esne-partitzera. Pañuelo beltza buruan, bizkarra oker-oker eginda ikusi ohi dugu marmitak eskutan hartuta. Ez dauka, hala ere, oraingoz jubilatze asmorik eta gauza den artean herrira jeisten jarraituko duela aitortu digu.

Juanita Beristain

Sei seme-alaba dituen Azpeitiko Orkazarre baserriko etxeokandrea jator honek atarian egin digu harrera eta txakurra ixilarazi ondoren berehala sukaldera gonbidatu gaitu, gure aldizkariaren berririk ez izan arren.

Sukaldeko txokoan jarrita lehengo eta oraingo kontuak atera dizkiogu, semea ondoan zuela, amak esandakoa osatu edota zuzentzeko.

Bizi guziye esne-partitzen

NOIZ ETORRI ZINAN ZUMAIRA?

33 urte izango die. Azpeitiyen bizi ginen kanterien albuen etxe batiere eta etxie erre zitzakun; orduan etxei gabe gerau ginen. Gero etxie erosi eta honea etorri ginen. Hemengo etxie ardi-borda mouko zaharra zan eta ipurditik bota gendun eta gero etxe berriye in gendun. Etxe berriye in eta gizona belaxe hil. Geldiu nintzen xei ume txikikin eta etxie pau ber gendun. Lan haundiyek euki ginuzen, animaliyen lanak ez du bukaerarik, ez du, haiei segi in ber tzakoe jai ta aste.

BETI IBILI AL ZERA ESNE-PARTITZEN?

Bizi guziyen. Azpeitiyen ere halaxe ibili ginen, ordu beteko bidie herrire, astue hartute. Honea etorri ginenien mantekilleruei ematen hasi ginen esnia, gero letxeruei, baina etzun paatzen ezerre, eta gero hasi ginen esne-partitzen. Gurelesan akzionistak gea.

GOIZETAN ZE ORDUTAN JEIKITZEN ZERA?

Goizin zazpi ta laurdenak alde. Lehen xeiretan jaikitzen ginen, umiak ere eskola jun ber tzeben, esnie



Juanita, asko sufritutako emakumea.

letxeruei eaman, bezeruei eaman... Orain ordie ondo bizi gea ordun konparaute. Presaik ez daukeu Zumaire juteko, orduik ez daukeu, umeik ez daukeu eskola bialtzeko...

MAKINA ONAK AL DAUZKAZUE?

Dana makineie daukeu behiak bitzeko, baina etxi garbitzeko makineik ez daukeu, nere eskuek bakarrik. Behiak bitzeko daukeu makinie, belarra ebakitzeke makinie, belarra zabaltzeke makinie...

ZENBAT BEHI DAUZKAZUE ORAIN?

Hogei, eta bi txiki.

LEHENO DANA ESNUZ IN BEHARKO ZINUEN?

Eneee ba, hartu balde bat... Nik behi eta ardi bitzen ondo dakit, danien, berko in, ez zan makineik lehen! Oin bezelako esne behiek ez zan lehen izaten; lehen 8 bat behi eukitzen zian eta idiyek ibiltzen zian laneako gurdiyekin. Orain berriz dana tratorie eta makineie ibiltze da. Eta oin makine hoiek baliyo debe!

ARDI-ESNIA ERE SALTZEN AL DEZUE?

Ardiyek dauzkeu zelaien belarra mozteko. Azkizutik etortzen da artzaia ardiyekin. Garai batiere bi ahuntz euki ginuzen, baina ardiyek ez diteu bestela inoiz euki, ez dao ta ardiyentzako mendirik. Oiloik ere ez daukeu, txarriik ez daukeu, txakurre eta 3 katu dauzkeu.

KALEKO EGUNEROKO BUELTA HORRETAZ JUBILATZEKO ASMORIK EZ AL DEZU?

100 urte baldin badauzket ere gauza banaiz jun in ber. Halare, jun gabe etsiko neuke. Kalea ere jungo nitzake bizitzea, etsiko nuke (semeak

MARTE
ILEAPAINDEGIA
Berezitasuna ileen
sendabidean
Amaiako plaza z/g Tlf: 143278

ITSASKI
supermerkatua
Urumea kalea z/g
Zumaia

S
SUKALDEKO
ALTZARIAK
DORNUTEGI
ARMAIRU ENPOTRATUAK
Basadi Auzategi, 10 behei
Telefonoa: 862051
20750 ZUMAIA
(Gipuzkoa)

“Etxi garbitzeko makineik ez daukeu, nere eskuek bakarrik”

ondoan buruarekin ezetz egiten du). Jaietan eta ez naiz juten Zumaire, alabak umikin etortzen dia ta jende asko eote gea hemen ta oso ondo pasatze deu.

ESNE-LITROA ZENBATIAN DAGO ORAIN?

Otxentaisinko (85).

ETA HASI ZINATENIAN?

2 litro errialian emate ginuzen Azpeitiyen neska kozkorak ginala. Hemen hasi ginenien 10 bat pezta o izango zien, ta gero jiyotzen-jiyotzen hasi zan. Letxeruek oso gutxi paatzeu, halare gehiena hari emate dieu. Kalien e basarriko moduen, diru gutxi dao; gaur mila durokin ezer ez dao. Gautxoritik hasten gea, semiek eta nik etxe diferentiek diteu. Semiek 52 bat bezero ditu. Dana 90 litro partitzen diteu. Lehen gehio, baino batzuk umiek eta aldeinda ta bestiek beitu re in in ber eta...

PROBATU AL DEZU SEKULA DESNATADA EDO HOLAKORIKAN?

Ez, askotan ez. Gustu diferentiek daukebe, gurie lodiyau da, beira ze nata iten zakon hemengo esniei. Hori hartuta ez die asko gizenduko.

ZEIN DA ESNEZ EGINDAKO POSTRERIK GOXUENA?

Arrozkonletxe batzutan iten deu, baina nei dana gustatze zat, eozer gauze, nahiz arrozkonletxe, nahiz mamiye...

Neska kozkorra zenetik dabil Juanita esne-partitzen.



BARATZAN ERE ARITZEN AL ZERA?

Ez daukeu, ezin gea ailegau, bi lagun geurela...

MEZETARA JUTEN AL ZERA?

Entierrota ta bai, baina jaiero ez behintzat. Ni Zumaire jute naiz. Alargundutakuen apaizak esan zin nahikua lan neukela eta eleiza ez juteko. Esan zin apaizak Aita Gure bat errezaue eta ez neukala konfesatzea ere jun berrikan.

TELEBISIORIK IKUSTEN AL DEZU?

Gustatzen zat, nik ontziak garbiuz ta beti beitze diot. Hildakuek azaltze dienien telebisioyuen ez zat gustatzen, akzidentiek ere ez, bildurra emate dit. Gustatu dana ite zaku. Euskal Telebista ikuste deu: Aire-Aire ta, Goenkale, ta Sustraira ta... Korridak ere gustatze zazkit telebisioyotikan ikusteko, han berta junda ez.

ETA RADIYUA?

Radiyue ikuilun eukitze deu, kotxin e bai, eta goizeko 8atik aurrea aitze det. Egualdiye ta akzidentiek ta dana esaten debe.

ETA PERIODIKUA LETZEN AL DEZU?

Betaik ez dauket periodikua letzeko, ekartzeko ere ez daukeu ohituraik. Gu gaztiek ginanien *Argia* ekartze gendun, oin dela 60 urte baino gehio, jaiero.

BERTSOLARIAK GUSTOKO AL DITUZU?

Bai horixe, bertsua nei asko gustatze zat. Gehiena Lizaso, Loidisaletxe, osaba Txapel, Akelino errejildarra, Basarri, Uztapide... Txapelek abotsa zuen bajue. Loidisaletxen semia ere santa eskian etorri zan urte batien.

ETA TRIKITILARIAK?

Lehen-lehengo trikitilariak zien... Elgeta bat. Beltz-beltz zatar bat zan gu bezelaxe, ta iten zuen soinuen ubeletan pañelo kolorezko bat atzea lotu, beste bat lepotik ipini... Halaxe zan, jotzen hasteako denbora ber tzun harek... Askoe ezautze genduna gendun *Xakariya*. Nere jaiotetxien e egote zian erromeiak. Akelino bertsoetan haste zan eta pasatze ginuzen kriston juergak. ■

ekin
ELEKTRIZITATEA

ISTALAZIO ELEKTRIKOAK
ISTALAZIO MUSIKALAK
AKUMULADOREAK
ALARMAK
ANTENAK
PORTERO AUTOMATIKOAK

DENDA: K. Nagusia, 8 - Tel: - Fax: 14 30 97
TAILERRA: Larriteko, 10 bide 1º - Tel: 14 34 74
20750 - Z.U.M.A.I.A (Gipuzkoa)

JOSEBA OSSA

-ITZULPENAK-
euskara-gaztelera-katalana -
ingelese-frantsesa

Tel-Faxa: 148306-148065

INPERNUPE
ELKARTEA

Erribera kalea Telefonoa: 861523
ZUMAIA

Etxebizitza gutxi eta garestiak

Lur falta eta hutsik dauden etxeak ez aprobetxatzea dira arazo handienetakoak

Azken urteotan Zumaian etxebizitza mordo bat eraiki da, zonalde ezberdinetan. Larretxo, Estazioa, Jadarre, eta beste hainbat lekuk itxuraldaketa nabarmena jasan dute. Hau horrela izanik ere, gaur egun dagoen pisu berrien eskaintza urria da; ondorioz prezioak nahi baino garestiagoak dira.

“Dirua, dirua badaukat, baina hain garestiak dira pisu berriak (...) Orain ezin gara sartu etxe berri batean, oso garesti daude (...) Nola ordainduko ditugu 30 milioi pezeta? (...)” eta abar, eta abar. Zenbat aldiz entzun ote ditugu, edo burutik pasa horrelakoak. Izan ere ez baita txantxetako etxe berri baten jabe egitea, are gutxiago Zumaian.

Denetik dago, baina esate baterako etxe berri batek 28 milioi pezetatik gora balio du, Estazioan merkeagoak aurki daitezkeen arren. Garesti xamar dela dudarik ez, eta gazte batentzat oraindik gehiago. Dena den, gazteak dira gero eta pisu berri gehiago erosten dutenak, hala dio behintzat Arantza Aramendi higiezinaren agenzia batekoak.

Bere esanetan, *“lehendabizi bigarren eskuko etxeak hartzen dituzte, baina gero gehiago nahi, eta berri bat erostera abiatzen dira”*. Hemen ere arazo bat dago



Azkenaldian egiten ari diren etxeak benetan garestiak dira.

ordea, bigarren eskuko pisuak gutxitzen ari direla abiadura bizian.

Beraz, ikusten denez arazoa ez da ekonomikoa, etxe falta handia dagoela baizik eta honen arrazoi nagusienetako bat da, eraikitzeko lurrik apenas dagoela. Zumaian etxebizitzak egiteko terreno oso gutxi dago. Karmelo Unanueko gunea da aprobetxatu daitekeen apurretakoa, baina askoz gehiago ez. Horregaitik, *“lurren antolaketaren birplan-teamendu luze eta sakon bat egin behar da”*.

Lurrik ez dagoenez eskaintzarik ez dago ia, pisuen prezioak goruntz doaz, eta ondorioz pisu bila dabilenak herritik kanpora joan beharra du. Aramendik azaldu digunez,

“Zarautzera jende asko joan da bizitzera. Bertan 900 etxebizitza baino gehiago eraiki dira eta honek ekarri du bigarren eskuko pisuak ugaritzea eta asko merketzea”.

Hutsik dauden etxebizitzak ere asko dira eta aprobetxatzen ez direnak. Udalak hemen parte hartu behar luke hauek merkatuan sartzen saiatuz; era honetan gainera, alokairuak indar gehiago hartuko luke, eskaintza gehiago izanez eta askoz merkeago. Baina honetarako alokairuaren aldeko mentalidade aldaketa bat eman beharra dago, eta Udalak erraztasunak eman, maizter eta jabeen artean bitartekari lanak eginez.

Jendeak, etxe bat erosteko orduan non dagoen kokatua asko baloratzen

ENRA, S.L.
INPRIMATEGIA



Amaiako plaza 15
Tel. 862458

Itzurun
ATEAK



Itzurun zuhaitzbidea 2
Tel: 861565
143446
ZUMAIA

LEIZE



Juan Belmonte 6
ZUMAIA Tel. 860415

du: ingurune politean, erosoan al dagoen eta herritik urrundu gabe. Gazteen kasuan berriz, hau ez da hainbeste gertatzen, gehiago kezkatzen baitira prezioaz.

Zumaian etxebizitzak egiteko terreno oso gutxi dago

Zumaian hala ere, fenomeno bitxi bat ematen da kokaguneari dagokionez. Zubi txikitik Poligono aldera bizi izan den pertsonak, nahiago izaten du bere lehen etxebizitza bertan hartu, eta ez zubi txikiaren beste aldean, eta alderantziz. Ohituragatik, alde batean eta bestean bizitza propioa eta ezberdina izango balute bezala, zatiketa hori nabarmena da.

Arantza Aramendiren ustez bestalde, "pisuen prezioak garestiak dira bai, baina azken urteotan mantendu egin dira ez du igoerarik izan". Zentzu honetan egoera ez da hain txarra; lurrik ez dagoela da kontua, eta honi irtenbide bat aurkituz gero, egoera goitik behera aldatuko litzateke.

Espekulazioak gainera Zumaian ez du eragin gehiegi izan. Pisuen prezioak ez dira puztu, bere horretan mantendu dira, espekulatu gabe. Arantzaren hitzetan, "espekulazioa orain dela urte batzuk nahiko normala zen, baina Zumaian ez det uste eman denik. Orain are gutxiago, gero eta kontrol handiagoa dagoelako, eta iruzurra egitea oso zaila da, beraz".

Gaur egun, pisuen alokairua bereziki indar handia hartzen ari da

gazteen artean. Honen arrazoia izan daiteke gaur egun dagoen bizimodua: lan kontratu finkoak asko gutxitu, bikoteek lotura harreman handirik nahi ez... Alokairua behar eta erritmo honetara egokitzen da, ez baitu pisu berri batean sartzean bezainbesteko arriskua suposatzen. Baina alokatzeko orduan ere arazoak ez dira falta, izan ere alokatzeko etxeak gero eta gutxiago daude, eta hau gutxi balitz 50 mila pezeta gutxienez ordaindu beharko dira

hilean.

Dena den, Alde Zaharreko plangintza berrian doazen etxebizitzak alokairua berpizteko tresna egokia izan daitezke.

Argi dago beraz, Zumaian bizitza ez dela batere erraza. Berdin dio pisu berria, bigarren eskukoa edo alokatua izan; ez dago terrenorik, ez dago etxe berririk. Non dago irtenbidea orduan, zer egin beharko dugu Zumaian bizi ahal izateko? ■

Azken 5 urteetan zehar eraikitako etxebizitzak

| | |
|--|-----------------------|
| Larretxo 18-20: | 32 etxebizitza |
| Estazioko kalea 26: | 24 etxebizitza |
| Alai 8: | 24 etxebizitza |
| P. Etxezarreta 1: | 12 etxebizitza |
| Juan Belmonte 5: | 8 etxebizitza |
| Juan Belmonte 51: | 8 etxebizitza |
| Juan Belmonte 31: | 8 etxebizitza |
| Jadarre (C. Ortiz-en aldamenean): | 30 etxebizitza |
| Hondar-gain etxaldea | 17 etxebizitza |

Orain eraikitzen ari direnak eta aurrikusita daudenak

| | |
|---|--|
| 3. sektorea (Alai eta Estazio artean): | Guztira 290 etxebizitza eraikiko dira. Horietatik, 88 babes ofizialekoak. |
| 20. H.G.A. (Lehen Otto Holkeren lantegia): | 144 etxebizitza |
| 17. H.G.A. (Hiltegi zaharraren atzean): | 16 etxebizitza |
| Erribera kalea 7-9: | 18 etxebizitza |

1996ko maiatzean, beteta zeuden etxebizitzak 3.140 ziren, eta hutsik zeudenak, 701.



**OPTIKA
ZUMAIA**

Txomin Agirre Kaia, 1
20750 ZUMAIA Tel. 143057




Foto Amertze

Erribera kalea 6
Tel./Faxa: 861707

Migel Aperribai, Hirigintza Batzordeko kidea

“Etxebizitzen arazoan Udalak plangintza serio bat egin behar luke”

-LUR FALTA AL DA ARAZO NAGUSIENA ETXE BERRIAK EGITEKO?

Terrenoa Zumaiak duen arazoetako bat da, bai etxebizitzak egiteko eta bai beste edozer gauzetarako ere, eremuz oso mugatua delako. Hala ere, ez da arazo nagusia. Eraikin lurra egon badago, Karmelo Unanueko zonan, Amaia Plazan... Baina arrazoi batzuegatik edo besteengatik ez dira oraindik eskuratu, hau da, inizatiba pribatuak edo jabeek ez dutelako nahi... Hori bai, terrenoa beti izango da arazoa Zumaian. Udalak herria zabaldu nahi badu gainera, neurriak hartu beharko ditu.

-ZE NEURRI?

Lurrak erostea etxebizitzak

eraikitzeko, babes ofizialekoak egiteko ere bai, eta era berean espekulazioa mozteko; etxebizitzaren azken prezioak hainbesteko garrantzia izan ez dezan. Espekulazioak gainera asko funtzionatzen du, eta hemen etxe agentziek zeresan handia izan dute prezioak igotzeko orduan. Prezioak igo egin dira eta dexente gainera.

-ZEINTZUK DIRA DATORREN URTETARAKO HIRIGINTZA BATZORDEAREN ASMOAK?

Udalak etxebizitzen arlo honetan akats handi bat izan du, ez duela plangintza bat egin eta orain ere ez du. Etxebizitzarako plangintza bat egin beharra dago, ze urrats eman behar diren finkatu. Orain arte Udalak

administrazio lanak egin ditu soilik, bere esku zeuden lurrak administratu; hori bai, neurri handi batean zeregin hau ondo bete du, baina politika zehatz bat garatu gabe. Pausoak ematerako orduan ez zaio etxebizitzen arazoari lehentasun handiegirik ematen.

-EGIA DENA DA, AZKEN URTEETAN ETXEBIZITZA DEXENTE EGIN DIRELA HERRIAN, EZ?

Niri ez zait iruditzen. Orain beharbada bai, sektorea berpiztu egin da eta etxebizitzak egiten ari dira. Dena den nere ustez etxebizitzen arazoa (prezioa) ez dago lotuta etxe berrien eskasiarekin. Hor badaude beste hainbat faktore, eta hemen hutsik dauden etxebizitzak sartuko nituzke.

Etxebizitza erosi, alokatu... Gaztea izanik, nola bizi duzu arazo hau?



Aitziber Odriozola

Asko balio due. Guk protekzio ofizialeko etxea hartu degulako ba bueno, baina garestiak dira. Pareja batek hartu behar du, eta biak lana inda, bestela ezin da.



INKESTA



Jesus Mendizabal

Ba gaur egun Zumaian oso garesti daude. Ni berez alkilerrean nago. Pixuak oso garesti daude jendea horretan sartzeko: kreditu haundietan sartu behar zera... Alkiler batzuk nahiko merke daude, beste batzuk pixkat garestiago. Ba hortxe bilatu in behar zeozer, ona bilatu behar.



Ane Osa

Nik usten det norberaren posibilitadeen arabera dala ez?

Argi dago ideala dala zeure etxebizitza eukitzea, baina edozeinik ez dauka aukera hori. Askotan aukera dago etxe zahar bat hartu eta ahal dezun moduan berritzeko, baina horretako ere dirua behar da. Orduan jende askori gelditzen zaion aukera bakarra alkilerre da.

ILE APAINDEGIA

herrea
uranga

Etzezarreta, 19 20750 ZUMAIA
Telefonoa: 862342

TXALAPARTA
O P A R I A K


Angeles Sorazu 2
Tel: 143089


JE MAR


LOREDE NDA


LANDAREAK
LOREAK
HAZIAK
ZERAMIKAK

Erribera 1 Tel. 860375









Harremanak Osagarriak, ala emankorrak

Gure bizitzaz disfrutatzeke egokia edo desegokia den eredurik ez dago. Baina badago finkoa eta beharrezkoa bihurtu duten bikote eredu bat. Bikotearen istorioa benetan zoragarria izan daiteke, partaide bakoitza bere buruarekin gustora dagoen heinean. Edozein erlazio mota baliogarria da, helburua gustora egotea bada. Baina askotan beste pertsonaren bitartez gure ongizatea lortzearekin nahasten dugu hau. Pertsonak garen heinean, ezinbestekoa dugu besteekin harremanak izatea. Hauek modu askotara definitu daitezke: lagunak, bikoteak, ezagunak eta bakoitzak jarri nahi dien izenpean.

Lehenik eta behin, geure buruarekin ongi izaten jakitea nahiko lagungarria da. Nahitahiezkoa bihurtzea bikote bezala izatea, gure nortasun edo egoeraren adierazle ona bihurtuz hau. Beti gurekin izan behar hori, nolabait gu ondo sentiarazteko. Bera gabe ez dakigu gustora izaten, maite ditugun gauzak egiten eta beste pertsonekin modu ireki batean erlazionatzen.


Ederra izan daiteke bakardadea ongi ezagutu eta beste pertsona batekin daukagun guztia konpartitzea. Osagarriak izatearena engainagarri izan daitekeen kontzeptua dugu. Nola da posible zuk dituzun gabeziak beste batek osatzea? Fenomeno benetan harrigarria eta gutxitan funtzionatzen duena. Halakotan menpekotasun gogorra sor daiteke beste pertsonarekiko. Honek modu berean asko mugatu

dezake bakoitzaren bizitza. Menpekotasunak denon ezaugarri izan daitezke, baina segurtasun minimo bat dutenek, ez dituzte mugak jartzen, ondo egoteko nahia baiiik.

Beraz edozein erlazio, bikote, lagun, hirukote... konpartitze batean oinarrituz gero, fruitu asko emango dituela ez dago zalantzarik.

Baina hau gabezien bideratzaile «behartua» bilakatuz gero, harremanak gero eta mugatuagoak izango dira. Honen arrazoi bat bakoitzaren autoestiman, kapazitateetan eta halako faktoreetan ez sinestean datza. Ez da errealia, guzti hau beste pertsona baten bitartez bideratzea. Beste gauza bat da bikotekide bat izatea nahi duzulako, eta bien artean dagoena konpartitzea. Ez dago definizio bat eman beharrik bikoteari. Bikote batean bi pertsona dira elkartzen direnak eta bien artean istorio bat sortzen dute. Bakoitzak badu bere nortasuna, funtzionatzeko modua, nahiak eta bera izateko aukeratutako bizimodua. Hori beste pertsona

batekin konpartitzean sortzen da harreman emankorra. Bestela gerta daiteke bata bestearen bizitzaren erantzule izatea! Hori luzarora ez da emankorra. Bakoitza bere bizitzaren erantzule izanez gero hori da eman daitekeena, daukazuna. Eta honela baten aberastasuna beste baten aberastasunarekin elkartuz fruituak kopre ederrekoak izango dira!



Ainhoa Iturbe



GILANO

LIBURUDENDA

Paperdenda
Aldizkariak
Fotokopiak
Enkuadernazioak

Baltasar Etxabe 7
Tlf: 14 31 91



ZURICH

ASEGURUAK

Bonifazio Etxegarai, 1
Tel. Faxa. 860169

ARRAIN ETA
MARISKOAK

MARES

BARAZKIAK

ETA

AURREZ

PRESTATUTAKO

JAKIAK

7 MARES IZOZTUAK



**GOTZONE
EGAÑA**

Gizonak ez, nola amakin bizi naizen bion artean gauzak iten ditteu. Umeak bai, zeozertan laguntzen dute: enkargutan...



**ARRITXU
IRIBAR**

Nere kasua nahiko bitxia da ze nere etxian ia gizonak nik baino lan gehio egiten du. Horretan suertea daukat, beraz etxeokandre papera senarrak betetzen du. Biok lanean gaude, baina ni alperragoa izango naiz.

Senarrak eta seme-alabek laguntzen al dute etxeko lanetan?



**MARI PAZ
ALBERDI**

Lagundu iten dit neri gizonak eta semeak ere bai. Txikia da baina bai... Ondo moldatzen gera.



**NEKANE
TXAPARTEGI**

Etxeko lanetan afaia iten du beti. Berak iten du afaia eta nik umeak bainatu eta dutxatu, erropak prestatu hurrengo egunerako eta...



**MARI KARMEN
ARANO**

Bai, bai, laguntzen due batzutan bai, bai gizonak eta bai seme-alabak ere. Beti, normalean, ez. Horrela, normal-normal ez, baina lagundu behar behar baldin bada bai.



**ESTHER
OSA**

Lagundu beharko. Nola lana iten deun, ba al dan neurrian laguntzen du. Umeak txikiak dira, baina ahaleginak iten ditteu beraiek ere parte hartzeko. Lagundu baino kolaboratu egin behar du etxeko lanetan.



**MARIBI
MEABE**

Pila bat laguntzen digu gizonak, eta semeak ere bai. Ez daukat kejian.

Alberdi
GIZONEZKOEN MODA

Erribera kalea 6
Tlf: 861155

Larrañaga Juanjo
MARAKINA

BASADI-TUSTATEGUIA, 4-1
ZUMARRA
TEL. 862061

**HARATEGIA
URDATEGIA**

ENTER INFORMATIKA
BALTSAR DE ETXABE z/g
ZUMAIA
☎: 86.11.75
☎: 86.05.50

ORDENAGAILU SALMENTA
SERBITZU TEKNIKOA
HARDWARE ETA
SOFTWARE
INFORMATIKAKO KURTSOAK

Oinak, zangoak, hankak. Baina ez hanka egiteko ezta inondik ihes egiteko ere. Oinek, zangoek, hankek gure etorkizuna ekartzen baitigute. Ez al dakizue oraindik zertaz ari garen? Hamar segundo dituzue asmatzeko; bat, bi, hiru, lau, bost, sei..., zortzi, bederatzi, hamar:

Euskal Herria KORRIKA

Gipuzkoako bihotzetik hasten da KORRIKAREN 10. saioa. Urte ilun askotan zehar ondo gordeta egon den lekutik. Martxoaren 14a da eta arratsaldeko 5etan Arantzazuko plaza jendez beteta ikusten da, han eta hemen korrikalariak berotzeko ariketak egiten ari dira bide luzea baitago lau haizetara euskaltzaleen mezua hedatzeko.

Hortik ez urrun, itsasertzean, eta ordu berean, ume eta gazteak Zumaiako kaleak zeharkatzen ari dira. Beheko plazara ailegatzeko. KORRIKA TXIKIA da.

Iluntzean saltaka Urola Bailaran sartu zaigu, baina oraindik Legazpi eta Urretxu artean dago. Ordurako Zumaian jaia lehertu egin da, eta kaleak jendez gainezka daude.

Gaueko 9,30etan, eta musika jarraitzen, Inda-Mendi elkartera abiatzen gara herri afaria ospatzera.




Trikitalariak jo eta ke ari dira guban saltakarako gogoak sortzen. Ordu horretan KORRIKARI harrera ona emateko 23 km falta zaizkigu.

Azpeitia, Zestoa, Arroa eta jadanik Narrondotik ikusten da. Badatoz gure herrira eta datozenen artera goaz osoago izateko. Errepidearen bi aldeetan makina bat lagun makilari esku beroa eman nahian.

Zarautz aldera joateko KORRIKAK 8 km egin behar ditu gurekin eta 2.000 km baino gehiago falta zaizkio oraindik Bilbora heltzeko. Zumaia umeen ametsetan behin-betirako azalduko dira etorkizunaren irribarreak.

Zumaiako
Txomin Agirre AEK
Euskaltegiko
7. urratseko ikasleak



NIKOL-ENEA

taberna

Amaiako plaza Tfnoa. 861440



Azkue Autoak

Estazioko kalea, 19
20750 ZUMAIA

Telefona: 861433
Fax: 861067

expert
ELEKTROGAILUAK

Mertxe Aizpurua

Etxezarreta 6
Tel. 861078 ZUMAIA

DISKO-BAR



Alai Auzotegia 2.

GURE TXOKOA TABERNA

Kaxuelita eta pintxo
ezberdinak

San Pedro kalea Zumaia

Aldaketak aurtengo kros herrikoian

Irteera Amaiako plazan eta amaiera Polikiroldegian izango da

Martxoaren 9an burutuko denarekin, 13 urte beteko ditu Zumaiaiko Kros Herrikoiak. Poliki-poliki finkatuz joan den lasterketa da Gipuzkoa mailan. Hau nabarmena da zentzu guztietan; batik-bat partaidetza maila handiagoa baita urtetik urtera, handiagoa eta kalitate gehiagokoa.

Lasterketa nagusian 500 korrikalari baino gehiagok esku hartzea. Hau da antolatzaileen esanetan markatu duten helburu nagusia. Orain arte 450eko kopuru horren inguruan ibili izan da, baina oraingoan aurreko guztiak apurtzea espero da.

Aurreko urtetako edizioekin alderatuz, aldaketa txiki batzuk egongo dira. Ibilbideari dagokionez, irteera Amaiako plazako Ostolaza altzari denda parean jarriko da. Plazari bi itzuli eman beharko dizkiote eta bertatik Erribera kalea zeharkatu eta zubi txikia pasa ondoren, Polikiroldegiruntz joko da. Hortik urteroko bi itzuli handiak eman beharko dituzte partehartzaileek. Beti bezala Itzurungo aldapa izango da dudarik gabe igaro beharreko punturik gogorrena eta erabakigarriena. Helmuga Polikiroldegi aurrean kokatuko da dutxak bertan baitaude eta sari banaketa ere barruan egiteko.



Zumaiar ugari hartuko du parte aurtengo kros herrikoian.

Aldaketa honekin, oreka bat aurkitu nahi izan da ikusle eta korrikalarien erosotasuna kontuan hartuta. Orotara gizonezkoek 10.200 metroko ibilbidea osatu beharko dute, eta emakumezkoek 5.800 metrokoa.

**Antolatzaileen helburua
500 korrikalari baino
gehiagok esku
hartzea da**

Bi mailatan, irabazleak 25 mila pezeta poltsikoratuko ditu, bigarrenak 15 mila eta hirugarren postuan sailkatu denak 10 mila pezta. Gainera, 25 mila pezetako bi sari berezi

egongo dira: ohi denez, gizonezkoen marka hobetzen duenarentzat (Kamel Ziani, 30'29''), eta Zumaiaiko kros honetan lehen aldiz, emakumezkoen marka apurtzen duenarentzat ere bai (Amelia Lorza, 19'46'').

Proba nagusia goizeko 10,30etan hasiko da; dena den, aurretik eta 9,30etatik aurrera beste maila batzuetako lasterketak ere ez dira faltako, Amaiako plaza inguruan.

Bukatzeke aipatu, eta okerrik ez badago behintzat, **Zakila Buelta** lasterketa korrituko dela azaroaren 23an, Behobia-Donostia proba amaitu eta handik hamabost egunetara. Hurrengo aleetan proba honi buruzko xehetasun gehiago eskainiko dizkizuegu. ■

Huntza, o.k.



DISEINUA
MANTENUA
ERABERRITZEA
ZUHAITZ, ZUHAIXKA
ETA FRUITONDOEN
KIMAKETA

lorazaintza S. Jose, 8-d Tlf: 143079

SERIGRAFIA



KUKUTZ

baltasar
etxabe 7 ZUMAIA

Tel:
860569

SAN TELMOTARAKO
KUADRILENTZAKO
KAMISETA MANGALUZE
ETA MANGAMOTZAK.
Orijinalak, eta koloretan ere bai.
Tirada txiki eta haundiak.
MUGITU,
BADATOZ FESTAK ETA!

Julian Igual veteranoa sasoi

NOIZTIK ZABILTZA KORRIKA SERIO EGITEN?

Aspalditik, betidanik gustatu izan zait korrika egitea. Gainera ez dauka konplikaziorik, ez da gauza asko behar korrika egiteko, arrisku gutxiko kirola da. Nere burua zaintzeko ere oso ondo datorkit.

HAIN GAZTEAK EZ ZARETENEZ, GEHIAGO ZAINDU BEHARKO ZARETE.

Bai, igandetan koadrilla handia joaten gara korrika, eta klaro, besteak baino gutxiago ez izateko ondo zaindu, prestatu behar naiz. Gainera ni neu naiz zaharrena, eta badakizu...

KONTROLIK ERAMATEN DUZU JANARI ETA MEDIKU ALDETIK?

Bai, bai. Dieta bat jarraitu beharra dago, eta horretarako medikuaren laguntza ezinbestekoa da, bai janari kontuak kontrolatzeko eta bai korrika zure gorputzak eman dezakeena kontrolatzeko. Ni orain dela 3 urte hasi nintzen mediku batekin.

ZENBAT ENTRENAMENDU EGITEN DITUZU ASTEAN ZEHAR?

Normalean 6 egunetan entrenatzen dut, baina hau aldatzen da prestatzen ari naizen lasterketaren arabera. Maratoi baterako entrenatzen ari banaiz astean 80-95 km korritzen ditut, bestela 60-70 astean. Hori bai, denboraldiko probarik nagusienak niretzat, Zumaiako krosa eta



Julianek asko maite du kros hau.

Donostiako maratoia dira dudarik gabe.

ZER ESANGO ZENIOKE ZUK, ZEURE ADINEAN GORPUTZARI HORRELAKO TRATUA EMATEA ULERTZEN EZ DUENARI.

Ni osasunez askoz hobeto aurkitzen naiz orain korrika egitea serio hartu nuenetik. Gorputzari gainera ez diozu horrelako tratatu txarrik ematen; sekretua zaintzean dago. Bestalde, gure adinean zerbait egin beharra dago, korrika, paseatu edo beste zerbait. Sakrifizio bat eskatzen du, baina azkenean onerako dela konturatzen zara eta gustua hartzen diozu.

ZUMAIAKO KROSA DATOR. ZER HELBURU DUZU LASTERKETA HORRETA-RAKO?

40 minututik behera jeistea. Lehenengo veteranoa izatea ere gustatuko litzaidake, baina oso zaila da hori.

AIZU, PIKE HAUNDIA IZATEN AL DA KORRIKALARIEN ARTEAN, ETA ZURE KASUAN BETERANOEN ARTEAN?

Bai, badago, baina pike sanoa da. Pikea, batez ere elkarrekin ibiltzen garenen artean izaten da.

IBILBIDEKO PUNTURIK GOGORRENA?

Honbre, zonarrik gogorrena Itzurungo aldapa da dudarik gabe. Dena den, gogortasun hori norberak jartzen du eramaten duen erritmoaren arabera.

IZANGO DUZUN ARERIORIK LATZENA?

Ez dakit, Aginagaldek irteten badu, bera izan daiteke veteranoen artean onena; edo baita Graxian Galarraga; Villar bera ere bai. Jende asko dago ondo ibiltzen dena.

SEKRETU BAT AZKENIK. NON ATAKATUKO DUZU?

Uff, hori ez da jakiten. Ez zara atrebitzen atakatzeraz indarririk gabe gelditzeko beldurratik. Dena den indar pixkat izanez gero, azken 200 metrotan ematen duzu guztia. ■


gooby
HAUR JANTZIAK
Amaiako plaza, z/g
Telef. 860959
ZUMAI


augustin
HARATEGIA
URDAITEGIA
Itzurum Zubaitz bidea, 1
20750 ZUMAI. Telefonoa: 862430

julio curiel

PELLUQUERO
GIZONEZKOENTZAT
ILE-APAINDEGIA
Erribera kalea 23

Hasi da III. San Pedro pala txapelketa



*Alkorta eta
Urbietak
osatutako
bikoteak
bigarren
postua
eskuratu zuen
iaz.*

Txapelketa honen 3. edizioan 31 bikotek eman dute izena aurtan. Oso aipagarria da urte hauetan kopuru hau nola igo den. 1995ean 21 bikote aritu ziren, hauetako 14 zumaiarrak; bigarren urtean, 1996an, bertakoen artean bakarrik jokatzea erabaki zen eta hala ere 21 bikotek eman zuten izena. Aurtan, beraz, kopurua asko igo da, hamar bikote gehiago baitaude.

Hogeita hamaika bikoteak era honetara banatu dira: 5 talde bost bikotekoak eta 1 seikoa. Talde bakoitzeko lehen bi postutan geratzen direnek San Pedro txapelketa jokatuko dute eta gainontzekoek San Pedrin izenekoak.

Aurreko urteetan bezala, partiduak ostiral gauez eta igande goizez jokatuko dira, eta aurtan berritasun bat egon daiteke, beharbada zenbait partidutan apustuak jokatzeak aukera egongo baita; hau ideia bat besterik ez da oraingoz, baina ez dirudi oso zaila izango denik martxan jartzea.

A TALDEA
G. Azkue-Amilibia
Ostolaza anaiak
Arrieta-Huertos
Serna-Bilbao
Iraundegi-S. Ulacia
Elustondo-Uranga

B TALDEA
Apestegi-Ulacia
Unanue-Unanue
Gorostola-Aizpurua
Doval-R. Azkue
Aizpurua-Egaña

C TALDEA
Albizu-Urrutia
Etxabe-Lazkano
Celes-Montxo
Jimenez-Lujan
Grela-Buenetxea

D TALDEA
Aser-Marcos
Suarez-M. Alberdi
Urbietak-Garikano
Uranga anaiak
Prieto-Galarraga

E TALDEA
Alkorta-Urbietak
Aizpurua-Alzibar
Arteche-J.Azkue
Oiarzabal-J.A.Alberdi
Uranga-Irureta

F TALDEA
Ibarra-Gomez
Martin-J.L.Alberdi
Zuazobide-Agirre
Arratibel anaiak
Alvaro-Ruiz



AXIER KIROLAK

Ortega y Gasset, 2
ZUMAIA

Telefonoa: 862206

AZKUE

Taberna-Jatetxea

- Jantokia zabalik
- Oheak
- Eguneko menua eta Karta
- Bataioak eta Jaunartzeak

Basadi 9

Tel.: 861780

AHOLKULARITZA
IRURE
ASESORIA

Erribera, 17 Tel/Fax: 862600 ZUMAIA

AUTOS ZUMAIA

Auto Konponketak

Juan Belmonte kalea, 45
Tel.: 851485



UROLA
TXIRINGITZA

Eguneko menua
Parrila bereziak

Gernika parkea

Tel.: 862656



Azken txanpan sartu da txapelketa

EMAITZAK

LIGA

Intxausti 2 - C. Landeta 3

Zumea 0 - Kabi 3

Axier kirolak 5 - Zumea 3

Intxausti 7 - Gesem 3

C. Landeta 3 - Kabi 2

Axier kirolak 3 - Gesem 1

Kabi - Gesem

KOPA

Basarri 6- Leize 5

Buitraker 9- Ganbara 0

Ipurbeltz 4- Buitraker 3

Leize 4 - Ganbara 2

Inpernupe 5 - Mendi-Ondo 9

Azkue & Eguzki 6 - Basusta 5

Leize 3 - Ipurbeltz 2

Basarri 2 - Ganbara 4

Urberu 2 - Inpernupe 4

San Telmoak gerturaten ari dira eta hauekin batera amaituko dira aurtengo plaieroak ere. Zenbait taldek 2. faseko partidu guztiak jokatu dituzte eta gainontzekoek azken partidua laster jokatuko dute.

LIGAn Axier kirolak dago lehen postuan, fase honetan jokatutako partidu denak irabazi baititu. Atzetik ditu **Kabi**, **Gesem** eta **C. Landeta** 6 punturekin, baina azken taldea partidu bat gutxiagorekin.

KOPAn, berriz, **Inpernupe** eta **Leize** daude lidergoan, baina postuak oraindik ere finkatzeko daude. **Ganbara**, **Zumea**, **Urberu** eta **Basustak** San Telmotarako porrak hartuak dituzte.



Urberu eta Basusta final erdietatik kanpo geratu dira.

izerdi tantak

Oier Aizpurua

Euskadiko txapelkun



Oier Aizpurua Itxas-Gaineko piraguista izan zen Neguko Euskadiko txapelketan gailendu zena, senior gizonezko mailan, 5.000 metroko ibilbidea burutu ondoren. Emakumezkoetan **Itziar Lopez** bigarren postuan sartu zen, Izaskun Aranburu olinpikoaren atzetik.

Baina Oier ez zen txapela ekarri zuen bakarra izan. Junior mailan gizonezkoetan beste zumaiar bat izan genuen txapelkun, **Andoni Amilibia** hain zuzen ere. Canoatan junior mailan **Jon Arano** nagusitu zen eta emakumezkoetan kadete mailan **Ane Galarraga**.

Itxas-Gain taldean harrobi ederra dagoela frogatzen du honek, lehengo hilaren 2an Irunen, bertako taldeak aurrea hartu zion arren. Irungo Santiagotarrak taldeak 1.793 puntu lortu zituen, zumaiarrek 1.697 eta Atletico Trintxerpek 1.153.

Auto - Konponketak

ELKAR




PEUGEOT

Estazioko kalea

20750 ZUMAIA

Telefona: 860201





ANTZERKIA

Martxoak 8 larunbata
Aita Mari zineman
Gaueko 10,30etan

XAGU TRANPA

Txalo taldeak
aurkeztuta
Sarrera: 500 pezeta

ADI!! Atsedendaldian hiltzailea nor den asmatzen dutenen artean bidaia bat zozketatuko da!

KONTZERTUAK

Martxoak 9

Trintxerpeko ILLUNBE
orkestaren kontzertua
Maria eta Joseko aretoan
eguerdiko 12,30etan

Martxoak 23

Udal Musika Bandaren
kontzertua
12,30etan

Martxoak 30

Valentziako "Coral Divisa" eta
San Pedro abesbatzaren
kontzertua Artadiko elizan
eguerdiko mezaren ondoren

Martxoak 16

Gipuzkoako Eskola mailako
Ibilaldi Neurtua



Martxoak 22

LUDOTEKAN
Udaberri Festa



Martxoak 23

INDA-MENDIK
antolatutako Zumaia Bira

ZUMAIA

INTERNETEN:

[www//paisvasco.com/zumaia](http://www/paisvasco.com/zumaia)

Ikastaroak

SALSA IKASTAROA

Ikastaroa hasita dago jadanik,
hiru hilabetetan zehar emango
da, astearte eta ostiraletan,
20,30etatik 22,00etara.



SUKALDARITZA

Oraingoan gozogintza ikusiko
da, apirilean zehar sei egunetan.
Matrikula 2.000 pezetakoa da
eta izena emateko epea
apirilaren 4an amaituko da.
Izena emateko nahiz argibideak
eskatzeko Forondara jo
dezakezu.

ARGAZKI ELKARTEA

Berriz ere martxan jarri da
talde hau eta martxoan zehar
bazkietza egiteko aukera
izango da. 2.000 pezeta
ordainduta, beste zenbait
aukeren artean urte guztian
laborategia erabiltzeko aukera
egongo da. Bestalde,
FOTOTEKAK zure argazkiak
ere bildu nahi lituzke.

SOLOZABAL AUTOESKOLA



Gidatzeko karnet guztiak

- Klase teoriko zein praktikoak norberak nahi dituenean
- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilia
- Merkantziak eta bidaiariak garraiatzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastarok.

P. Etxezarreta 19 - Bis Tlf/Fax: 861416



Loitz

Erribera 4
Tel./Fax:
143422

- *Eskola eta bulegorako materiala
- *Enkoadernazioak
- *Fax publikoa
- *Aldizkari eta opariak

Zine
Zine

El odio


EL ODIO
(1995, 96 min.)

Zuz: Mathieu Kassovitz
Akt: Vincent Cassel
Hubert Koundé

Poliziak egindako atxiloketa baten ondorioz gazte bat erdi hilik geratzen da. Hau jakin ondoren Pariseko auzo pobre bateko jendea poliziaren aurka burruka egitera ateratzen da kalera. Vinzek (Vincent Cassel) polizia batek galdutako pistola aurkitu eta beste bi lagunekin batera Pariseko kalean zehar abiatzen da mendeku bila.

Mathieu Kassovitz-en bigarren lan honen ardatza poliziarenganako gorrotoa da. Hauek erabiltzen duten gogorkeria salatzearekin batera, gainbehera doan gizarte baten kronika da *El odio*. Gogortasun hau hobeto isladatzeko, zuzendari gazte honek pelikula txuri-beltzean egitea erabaki zuen.

Filme frantziar honek 1995eko Canneseko zinemaldiko zuzendari onenaren saria irabazi zuen. *El Odio* filmeari buruz jende guztiak ez du iritzi bera: batzuen ustez auzo pobreei buruz ezer ez dakien zuzendari baten lana da; Jodie Foster aktorearen ustez, aldiz, azken 10 urteetan egindako pelikularik onena omen da. Zuek erabaki...



IRAKURKETARAKO AUKERAK

Hemen duzue Udal Liburutegian aurki ditzakezuen liburu berri eta interesgarrien aukeraketa bat.

Dasta eta goza itzazue ahal duzuen neurrian

Gazteleraz



- La costilla asada de Adán
- El canto de la juventud
- Mujeres de negro
- Recuerdos de otra persona
- Historias de mujeres

Carmen Rico-Godoy
Montserrat Roig
Josefina Aldecoa
Soledad Puertolas
Rosa Montero



Euskaraz

- Errebeldeak
- Matias eta aitona
- Azken herensugea
- Viking egoitza bat Groenlandian

Susan E. Hinton
Roberto Piumini
Edith Nesbat
Olivier/Coelho

- Nerea eta biok
- Ezer baino lehen
- Lehenago zen berandu
- Marasmus Femeninus
- Zergatik Panpox

Laura Mintegi
Arantxa Iturbe
Arantxa Iturbe
Patziku Perurena
Arantxa Urretavizcaya

Haur/Gaztetxoentzat



BASUSTA
ERRETEGIA

Pantxita Etxezarreta, 25
Telefona: 862073

20750 ZUMAIA



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAIA MOTOR

Santixo auzoa, 22
Tel./Faxa: 143143

Galdona



burdindegia

Mendaro marinela, 1
Juan Belmonte, 15
Tel.: 861117-143346 Faxa: 861330

Otsailaren 28an bete ziren 100 urte Angel Enbil jaio zela. Zumaiar hau Asturias aldera joan zen txikitari eta han lan handia egin zuenez, omenaldi beroa eskaintzen ari zaizkie Pola de Sieron 100. urteurrena ospatzeko. Han izan da Parrokiko San Pedro abesbatza ere eta oso emanaldi arrakastatsua izan zuen. Agustin Zubimendik musikagile handi honen bizitzako zenbait datu interesgarri kontatu dizkigu.

Angel Enbil, 100 urte

Angel San Telmo kalean jaio zen 1897ko otsailaren 28an. Ondoren Mari kaleko 6 zenbakian biz izan zen.

San Pedro Parrokiko organojolea zen Luis Urteaga jaunarekin hasi zituen musika ikasketak, eta aldi berean tiple gisa ere kantatzen zuen.

Lan kontuengatik familia Gijonera joan zen. Ignacio Uria jaunarekin egin zituen organo eta violoncello ikasketak, eta hauekin batera armonia eta konposizioa ere ikasten zuen bere lehen irakaslea izan zen Luis Urteagarekin, elkarri eskutitz ugari bidaliz.

1915ean zuzendu zuen lehen aldiz Koru bat, eskolako ikaskideek osatzen zutena. Bost urte beranduago EL VERGEL koroa (emakumezkoena) fundatu zuen eta 1930ean ORFEON GIJONES sortu eta



zuzendu zuen.

Futbolearen ere aritu zen eta bere anaia Estanisekin batera Sporting de Gijon taldean jokatzera iritsi zen. Orkestra musikari gisa bere anaia Estanis (kontrabaxujolea) eta beste musikari asturiar batzuekin batera

Asturiasko Orkestra Sinfonikoa sortu zuten eta bertan egon zen 1946ra arte, orduan Pola de Sieroko Musika Bandaren Zuzendari postua lortu baitzuen oposizio bidez.

Organojole gisa, Gijongo Inmaculada Elizan eta Pola de Sieroko Parrokian aritu zen, baina Asturiasko herrietan eta beste toki batzuetan ere kontzertu asko eman zituen.

Konpositore gisa ehun lan baino gehiago egin zituen, "a capella" kantatzeko lan polifonikoak nahiz organoarekin lagundutakoak. Era berean musika koral asturiarra ere egin zuen, bai erlijiosoa bai profanoa. Zenbait Meza konposatu zituen eta baita ahots eta pianorako pieza ugari ere.

Pola de Sieron hil zen, 1980ko ekainaren 18an. ■

Erribera kalea, 2
Telefonoa: 861125
ZUMAIA

MENDI - ONDO
ELEKTRIZITATEA

Axular 14
20750 ZUMAIA

Telefonoak:
860074 - 861569

- ALARMAK
- ANTENAK
- * Banakoak
- * Kolektiboak
- * Satelite bidezkoak
- Atezain automatikoak
- Eta abar.

BALEZULO
inportaturiko erropa
eta artisautza
Basadi 3 Zumaia

TXOKOA
T
B
E
R
N
A

Artadi
Auzoa

86 21 89

AIZPURUA
L
I
B
R
U
D
E
N
D
O
P
A
R
I
A
K

Aita-Mari Auzategia, 17
Telefonoa: 861569
20750 ZUMAIA

Lili Moon

Soinu ilunak, kitarra gurutzatuak, pasarte instrumentalak, ahots melodikoak baina oso urrunak, eritmo lasaiak, konposaketa luzeak, agoniaz beteak... Ez, ez da herri honetan entzuten ohituak gauden musika. Indarra badu, ordea, eta gainera ez du alferrikako doinurik.

Cebri ahotsa eta kitarra, **Joe** baxua, **Ina** kitarra eta **Leire** partxeetan. Mendarotik datozkigu. Grabaketa hau entzunez berehala antzeman daiteke talde honek ez duela denbora alferrik galdu estilo desberdinak lantzen. Pop britaniarraren tankera dutela esatea, etiketa erraz eta eroso bat jartzea dela onartzen dugu, baina badute bai *Oasis* edo *Blur* bezalako taldeen antzarik.

Esan beharra dago nahiko soinu ona lortu dutela beraien lokalean lau



pistako batean grabatua izateko. Benetan erakusgarri bikaina da baliabide murrizekin horrelako zerbait egin izana. Ez du estudio batean grabatutako maketa baten soinua, baina kalitateak gaina hartzen du proposamen erakargarria bihurtuz. Agian maketa honen sekretua patxada handiz landu dutela izan liteke, bederatzi hilabete behar izan baitituzte ingelesez abesturiko 9 kantu osatzeko.

Zorte ona opa diegu, etorkizun ilunaren bidea aukeratu baitute, saltzeko ia ezinezkoa den musika egiterakoan.

Kontakturako telefonoa:
(943) 75.62.23 (Cebri)

9. ESPARRAGO ROCK GRANADAN



Granada aldeko lagun batzuek martxoaren 22 eta 23an izango den makro-kontzertuko informazioa bidali digute. Aurtengo leloa "Denok gara errefuxiatuak. Nazioen gerra eta hipokresiaren aurka" izango da eta 4 eszenatokietan zehar talde ezagun piloak igaroko da, asko nazioartekoak: **Ice-T, Neneh Cherry, The Killer Barbies, Babes in Toyland, Corcobado + Manta Ray, Todos Tus Muertos, Def Con Dos, Hamlet** (argazkikoak), **Reincidentes, Nación Reixa, Sociedad Alkoholika** eta abar.

Gasteizko Zuloa dendatik autobusa antolatu dute bertara joateko, ostiral goizean irten eta astelehen eguerdian itzuliz. Bidaia + Sarrera + Akanpada **14.500** pezetan irteten da eta informazio gehiago nahi baduzu dei ezazu 945-258866 telefonora.

ERROTA **ERROTA**
OPIL - OKINDEGIA



Juan Belmonte. 39 - Tfno. 86 23 68
Erribera. 2 - Tfno. 14 30 01
ZUMAIA

EGOKI
ERLOJU DENDA

E. Gurrutzaga plaza, 6
ZUMAIA

ARGIA



Itzurun, 1 - Telf. 86 09 93
ZUMAIA

JUSTA
TABERNA
EGUNEROKO
BAZKARIAK



Erribera kalea 20

ONCE **JOXE**
MANUEL

Kupoiak tailer, etxe eta dendetara eramaten dira.
Tel: 862347-861001

IHINTZA
taberna



Tlf: 860472
Ortega y Gasset, 33

Motxian hi!



Zein: Bixente Antia
Zer: Dendari nekaezina

- ZEIN IKASKETA EGIN DITUZU?
- OHO** EGIN NUEN.
- NOIZTIK ZABILTZA OFIZIO HONETAN?
- NERE KONTURA BEDERATZI URTE.
- ETORKIZUNERAKO PLANIK? AMETSEN BAT?
- EZ. BADA**KIZU, **HANDIAK TXIKIA JAN OHI DU** ETA...
- "KANTEA LABEL", ZER MODUZKO KALITATEA DU?
- ONA. UDA** GARAIAZ BATEZ ERE.
- ZE MOTATAKO BEZEROAK DITUZU?
- NORMALEAN** ETXEKO ANDREAK IZATEN DIRA.
- ASTE**BURUTAN DENETIK.
- LANERAKO ORDUTEGI FINKOA AL DUZU?
- HELDU** NAHI IZANEZ GERO BETI DAGO LANA.
- BEREZIKI GUSTOKO DUZUN PRODUKTU BAT?
- GOZOKI** GUZTIAK.
- BIZITZEKO BASERRIA ALA KALEA NAHIAGO?
- BASERRIA**, BAINA BIZITZEKO BAKARRIK.
- LANERAKO...**
- PELIKULAK ALA LIBURUAK NAHIAGO? AZKENA?
- PELIKULAK. AZKENA** ¿HOLA, ESTÁS SOLA?
- EROSLEENTZAT OROKORREAN AHOLKURIK?
- BERTAKO** PRODUKTUAK BALORA DITZATELA.
- ZERI BEGIRATZEN DIOZU PRODUKTU BAT EKARTZERAKOAN? PREZIOA, KALITATEA...?
- KONJUNTOAN**, GUZTIARI BEGIRATZEN DIOT.
- ZUMAIAKO TXOKO ATSEGIN BAT?
- SAN LORENTE**, PAKEAN BAKARRIK EGOTEKO.

LANA

Neska edo mutil gazte bat behar da komertzial lanak egiteko. Interesatuak deitu 143453 telefonora.

34 urteko neska euskaldunak haurrak zainduko lituzke. 907 465138 (Maite).

SALEROSKETAK

Izozkailu berri bat salduko nuke. Bertikala, 8 kajoikoa. % 30eko beherapenarekin. 862071 (Arantxa).

Aita-Marin garaje itxia salgai. Tel. 861943

AGURRAK

(...?) ea larunbateko kuadroak aldatzen dituzun. Mua

Hamar Terdi GUAPISIMO. Mua.

Txino pinuarekin harrapatu haute. Toke-de kedarik ez!!! E.L.B.

Lugareño, Lugareño ja, ja, ja, ja, ja, ja. Lugareño, Lugareño ja, ja, ja, ja, ja, ja. Zure ezagunak: 7 Peich.

JOXERO! Puta zaharra emate huan! Earra ipurdia!

JOSUA! Txintxetakin jolastia arriskutsua dala!

ARANTZA! Norainokoa ote da nire energi maila? Guahahahaahah!!!

TINTES FARMATIN! IN-DI-A-KIN!

INDUS!! Kumunetan ze mouz konpontzen zintaten?

ESTHER, Galeseko ahuntz eta behien artean. Ai, ze polit!

MORLANDO, ai al haiz Korrikarako entrenatzen? So-sofan exerita?

AUPA PATXI! Eutsi gogor geure artean izan arte.

CARLIN

OFIMARKET

OFIZINETARAKO MATERIALA
INFORMATIKAKO ORDEZKO PIEZAK
INKJET ORIJINALAK; HP, EPSON...

Fotokopiak 5 pezetan

Kale Nagusia 3 Tel./Faxa: 143453



ALBAITARITZA KLINIKA

DIEGO SAN SEBASTIAN BARANDIARAN
IÑAKI GARMENDIA MENDIZABAL
-ALBAITARIAK-

Basadi, 7 behea
20750 ZUMAIA
Tel. 143310

LARRIALDIAK
: 24 orduetan
: Zeure etxean
-Telef. 900-282829
Abonatu zbkia: 247790

BIZKOR

FOTOKOPIAK



Basadi 1-4, behea - TEL: 145120

E U S K A L D U N O N

1997

Gida

Elektrikariak
Suhiltzaileak

Iturginak

Aseguruak

Sarrailagileak

Bidaiak

Jatefexak

Informazioa:
☎ 943-300222

K
O
M
E
R
T
Z
I
A
L
A

Ileapaindegiak

Ikuskizunak

Argazkilariak

Haurtzaindegiak

Mekanikariak

Dentistak...

e u s k a l d u n o n
Egunkaria

KOSTA GAS




ZERBITZU OFIZIALA

Etxezarreta, 6
ZUMAIA

Tel. 86 10 78

KALEFAZIO ETA GAS INSTALAZIOAK

- Butano
- Propano
- Gas Naturala



Lehiaketa Goxoa



Aurreko hilabetean irabazlea **NEKANE AIZPURUA** izan da, argazkiko pertsonaia hura Julio Beobide zela

esan zigulako. San Markos tarta ederra jaso zuen. Besteoi animo, oraingoan tokatuko zaizue eta !!

Non amaituko da aurten Arantzazutik irtengo den **Korrika?**

Asmatzen duzuenon artean TXAPARTEGI GOZOTEGIAK

emandako tarta zoragarri bat zozketatuko dugu. Parte hartzeko nahikoa duzu erantzuna Txapartegin bertan edota gure buzoian uztea martxoaren 21a baino lehen. Zorte on!

